

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

102/2023 Foru Agindua, otsailaren 23koa. Hutsen zuzenketa, abenduaren 12ko 580/2022 Foru Aginduarena, zeinaren bidez onesten baitira agindu horren I. eranskinetik XXXVII. eranskinera bitartean agertzen diren plazen deialdia eta Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren abenduaren 12ko 580/2022 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren agindu horren I. eranskinetik XXXVII. eranskinera bitartean agertzen diren plazen deialdia eta Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak.

Aipatutako oinarri espezifikoetan hainbat huts atzeman direnez, dagozkien zuzenketak egin behar dira.

Lehenik eta behin, akats baten ondorioz, B gidabaimena izatea sartu da berariazko betekizun gisa administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako zeregin berezien klaseko lankidetzako kudeatzaile lanpostuak esleitzeko, bai eta administrazio orokorreko eskalako laguntzaileen azpieskalako lanpostua esleitzeko ere.

Bestalde, administrazio orokorreko eskalako kudeaketa azpieskalan sartzeko deialdiaren oinarri espezifikoetan ezartzen da balioetsi egingo dela "Ogasuneko erdi-mailako teknikarien lan-poltsa handitzeko egindako deialdi espezifikoaren bidez (2015) eraturako aldi baterako lan-poltsan egotea" baina ez da zehazten lan poltsa hori 2019an handitu zela.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan dio administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzaketela, ofizioz edo interesdunek eskatuta, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorriz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea abenduaren 12ko 580/2022 Foru Aginduaren VIII. eranskina (Lankidetzako kudeatzailea). Agindu horren bidez onetsi ziren haren I. eranskinetik XXXVII. eranskinera bitartean agertzen diren plazen deialdia eta Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko

salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak. Hona hemen zuzendu beharrekoa:

3. oinarria. Lanpostuak esleitzeko baldintza espezifikoak.

Hau dioen lekuan:

“Deitutako plazari dagokion lanpostua esleitzeko, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da.

Halaber, deitutako plazari dagokion lanpostua esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da”

Hau esan behar du:

“Deitutako plazei dagozkien lanpostuak esleitzeko, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da”

Bigarrena. Zuzentzea abenduaren 12ko 580/2022 Foru Aginduaren XI. eranskina (Administrazio orokorreko erdi mailako teknikaria). Agindu horren bidez onetsi ziren haren I. eranskinetik XXXVII. eranskinera bitartean agertzen diren plazen deialdia eta Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak. Hona hemen zuzendu beharrekoa:

4.3 oinarria. Beste merezimendu batzuk.

Hau dioen lekuan:

“Atal honetan, 13 punturekin baloratuko da Arabako Foru Aldundiak Ogasuneko erdi-mailako teknikarien lan-poltsa handitzeko egindako deialdi espezifikoaren bidez (2015) eraturako aldi baterako lan-poltsan egotea, batez ere errentaren kanpainarekin loturik sortutako aldi baterako beharizanak estaltzeko, bai eta zergen kudeaketa eta/edo likidazioaren arloko A taldeko A2 titulazio-azpitaldeko lanpostuetan aldi baterako beste behar batzuk estaltzeko ere”

Hau esan behar du:

“Atal honetan, 13 punturekin baloratuko da Arabako Foru Aldundiak Ogasuneko erdi-mailako teknikarien lan-poltsa handitzeko egindako deialdi espezifikoaren bidez (2015) eraturako aldi baterako lan-poltsan egotea, batez ere errentaren kanpainarekin loturik sortutako aldi baterako beharizanak estaltzeko, bai eta zergen kudeaketa eta/edo likidazioaren arloko A taldeko A2 titulazio-azpitaldeko lanpostuetan aldi baterako beste behar batzuk estaltzeko ere. Lan-poltsa hori 2019an egindako deialditik eratorritako aldi baterako lan-poltsak handitu zuen”

Hirugarrena. Zuzentzea abenduaren 12ko 580/2022 Foru Aginduaren XXVI. eranskina (Administrazio laguntzailea). Agindu horren bidez onetsi ziren haren I. eranskinetik XXXVII. eranskinera bitartean agertzen diren plazen deialdia eta Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean karrerako funtzionario gisa sartzeko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuak arautu behar dituzten oinarri espezifikoak, aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkionak. Hona hemen zuzendu beharrekoa:

3. oinarria. Lanpostuak esleitzeko baldintza espezifikoak.

Hau dioen lekuan:

“Euskarazko hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data igarota daukaten lanpostuak esleitzeko, hura betetzen dela egiaztatu behar da.

Gainera, deitutako plazei dagozkien bi lanpostu esleitzeko, B gidabaimena eduki behar da”

Hau esan behar du:

“Euskarazko hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data igarota daukaten lanpostuak esleitzeko, hura betetzen dela egiaztatu behar da”

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorritz: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 23a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR